

XXI. mendeko Euskal Herria euskaldun! Eta horretan, nik zer?

Maria-Jose Azurmendi

UPV/EHU-Euskal Herriko Unibertsitatea

ehu-azurmendi@telefonica.net

Sarrera-data: 2013-9-30 / Onartze-data 2013-10-30

Laburpena. BAGERA Elkarteak antolatutako Jardunaldian (Donostia, 2013ko udaberrian) emandako hitzaldian oinarritzen da artikulu honetan esaten direnak. Helburua da norbanakoa erdigunean jarritz, Euskararekiko zenbait ideia adierazi ondoren, nola bultzatu bakoitzak bere diagnostikoa egitea, beti ere Euskararen alde gehiago inplikatzeko, besteak beste artekotasanaren bidea indartzuz. • **Hitz-gakoak:** *Euskara biziberritzea, diagnostikoa, plangintza berrikusi, pertsonaren inplikazioa, artekotasuna.*

Abstract. This article is based on a lecture given at the conference scheduled by the Association BAGERA (in Donostia, spring 2013). The goal is to put people in the central place, and after exposing different ideas about Euskara, to encourage each person to make their diagnosis, to achieve a higher participation in favour of the Euskara, also using the route of the interaction. • **Key words:** *revive the Basque, diagnosis, planning review, involve the person, interaction.*

SARRERA

I

Donostiako Euskaltzaleen BAGERA Elkarteak zazpi saioko Jardunaldia antolatu zuen, 2013ko udaberrian, San Telmo Museoa, honako ikurritza erabiliz: **Bidea marraztera goaz! XXI. mendeko Donostia euskaldun! Zatoz zu ere San Telmora!**

Honako hiru ardatz proposatu zituzten hitzaldi-mintegitan lantzeko: 1) Zure ikuspuntuan, zer behar dugu XXI. mendean Donostia euskaldun izateko?; 2) Nola bihurtu gaitezke euskaldunak ikusgarri eta erakargarri Donostian?; 3) Zer egin dezakegu, nola antolatu beharko genuke donostiar euskaltzaleok bide horretan?

Ni gonbidatu ninduten, parte hartu nuen, eta halako ikurritza erabili nuen nire saiorako: **Pozik bizi(ko) naiz+gara Euskaraz!** Nire helburu nagusia izan zen: pertsona maila azpimarratzea, bertan geunden gutako bakoitzari zenbait ideia emanaz eta, horiek hausnartu ondoren, bultzatzea gutako bakoitzak Euskararekiko gehiago inplikatzeko, bat eginez Jardunaldiaren ikurritza eta helburuarekin; moduren batean, proposatutako hiru ardatzak ere kontutan hartu nituen. Hauxe adierazi nahi dut artikulu honetako ikurritzean ere. Artikulua oinarritzen da Jardunaldian esan edo emandakoan; baina ez du zuzenean jasotzen galdera-erantzunetan eztabaidatutakoak, nahiz eta oso interesgarriak izan, artikulu gehiegi ez luzatzearen. (Antzekoa adierazi nuen ere ORREAGA Elkarteak antolatutako Jardunaldian, Galdakaon, 2013ko azaroan).

Lau ataletan banatu nuen nire saioa: 1) *Euskararekiko norbanakoen diagnostia*; 2) *Euskal Herriko gizartea*; 3) *Euskararen historia*; 4) *Diskurtsoak eta ikurritzak*: berak dira mantentzen direnak artikulu honetan.

1. EUSKARAREKIKO NORBANAKOEN DIAGNOSIA

AMIA eredua (Arrizabalaga, L. & Lezamiz, I. (2005). *Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak*. Bilbo: Ezagutza-Klusterre) erabili genuen, pertsona mailan gehienbat aplikatu nahian:

BEREIZTU:	FAKTORE:
Ahuleziak	Barnekoak + Kontrakoak
Mehatxuak	Kanpokoak + Kontrakoak
Indar-guneak	Barnekoak + Aldekoak
Aukerak	Kanpokoak + Aldekoak

Nire helburu nagusia izan zen: pertsona maila azpimarratzea, bertan geunden gutako bakoitzari zenbait ideia emanaz eta, horiek hausnartu ondoren, bultzatzea gutako bakoitzak Euskararekiko gehiago inplikatzeko, bat eginez Jardunaldiaren ikurritza eta helburuarekin.

**Nahiz eta AMIA
eredua
(Ahuleziak,
Mehatxuak,
Indar-guneak,
Aukerak) sortua
den lan-munduko
organizazioetan
eragiteko,
baliagarria da
ere analisi eta
aplikazio maila
guztietan.**

Nahiz eta AMIA eredua (Ahuleziak, Mehatxuak, Indar-guneak, Aukerak) sortua den lan-munduko organizazioetan eragiteko, baliagarria da ere analisi eta aplikazio maila guztietan (gehienbat Psikologia Soziala diziplinatik begiratuta): pertsona + pertsona-arteak, taldea + talde-arteak, elkarte sozialak, instituzio ofizialak edo erakundeak, erdi-erakundeak (erdi-sozialak+erdi-ofizialak), ... Horregatik, nahiz eta pertsona mailan orain gehiago kokatu, bestelako analisi eta aplikazio mailentzako ere baliagarria da AMIA eredua; baliagarriaz gain, beharrezkoa ere, gora eta behera beraien artean lotura eginez, artekotasuna erabiliz.

Horrela ba, pertsona mailan aplikatuz:

Ahuleziak (barnekoak + kontrakoak)

Batzuk aipatuz: erdalduna izatea, edo Euskaraz espainieraz baino gutxiago jakitea, euskaldun aktiboa ez izatea, familian Euskararen beharrik ez izatea, hezkuntza ez Euskaraz egitea aukeratzea, ohiturak espainieraz egiteko, estresa zein hizkuntzan hitz egin aukeratzekoan (Badu-Bada Erakusketa, Donostia, STM, 2012-2013), espainieraz hitz egiterakoan eroso sentitu eta Euskaraz konfiantza gutxiarekin ibili, beldurra zenbait testuingurutan edo pertsonekin Euskaraz hitz egiteko, sare soziala erdalduna aukeratzea, Euskararen garrantziaren kontzientzia falta, interesa eta motibazio falta Euskararekiko, lasai eta pozik Euskara ez jasotzearekin; edo Euskararen kontra egitea, espainiera eta Espainiarekin identifikatzea, Euskararekiko identitatea zatitzailea dela sinistea, Euskararekiko diruak kentzearen aldekoa, instituzio erdaldunen aldekoa izatea,...

Mehatxuak (kanpokoak + kontrakoak)

Zonalde erdaldunean sortu+bizi, familian euskaldunik ez izatea edo Euskararen kontrakoak izatea, hezkuntzan erderaz (espainieraz edo frantsezera) ikastera bultzatua izana, sare soziala erdalduna lortzea, giro erdaldunean bizi, ikusi+entzun+... espainieraz egin ia bakarrik, Euskarari errentagarritasun eskasa ikustea eta prestigioa ere eskasa sumatzea,...; Euskal Herria (EHa) berezko Estatu propioa ez izatea nahiago, ukipen egoerako menpekoa izatea, egoera ez-demokratikoan egotea, etika ekolinguistikoa ez gordetzea, Europako gomendioak ez betetzea, hezkuntzan eta kulturaren Euskarak gabezi handiak izatea, euskal administrazioa ere menperatuta egotea, ekonomia ere menperatuta edukitzea, Euskara beharrezkoa ez izatea nahiz eta ofiziala izan EAEan, EHan lidergoa duten askok (gehienak?) erdaldunak izatea (adibidez, EAEko aurreko legealdian Jaurlearitzako eta Parlamentuko buruekin gertatutakoa), boterea dutenak asimilazioa/segregazioa/esklusioa/aka-

batzea motetako politika erabiltzea EHako euskal hizkuntza+kultura+demografia+... eta euskal ezaugarri guztiekin (Bizitasun Etnolinguistikoa + Akulturazioa + Identitate Etnolinguistikoa teoriak, eta beraien artekotatasunak ere, adierazten dutena erabiliz (Azurmendi, M.-J. (1999). *Psicosociolingüística*. Bilbo: UPV/EHU)

Indar-guneak (barnekoak + aldekoak)

Euskaldun aktiboa izatea, Euskaraz espainieraz baino gehiago edo hainean jakitea (formalki+informalki), familia euskalduna izatea aprobetxatzea, hezkuntzan (unibertitate mailan ere) Euskaraz ikastea erabakitzea, sare soziala euskalduna izatea nahi eta lortzea, Euskararen indarberritze+biziberritzearen aldekoa izatea, Euskararen aldeko motibazio integratiboa gehienbat izatea (baita instrumentala, komunikatiboa, ... ere), EHarekin eta Euskararekin identifikatzea (identitate etnolinguistikoa deitzen dena, Gizarte Psikologian), EHaren eta Euskararen aldeko independentziarekin bat etortzea, ahal den neurrian Euskaraz bizitzea (lanean, administrazioan, ekonomian, solasaldian, erosketetan, hedabideetan,...), euskal elkarteren batean (BAGERAn, adibidez) edo ekintzaren batean (KORRIKAn, adibidez) partehartzea, artekotasunean ahal den neurrian partehartzea nahi izatea, ...

Aukerak (kanpokoak + aldekoak)

Zonalde eta giro euskaldunean sortu+bizi izatea, sare soziala euskalduna izatea erraza gertatzea, ikusi+entzun+egin ... Euskaraz gehienbat egitea, Euskarari balio erantsia + errentagarritasuna + prestigio soziala +... handiak eta erakargarriak eranstea, lidergoak ere euskaldunak direnak aukeratuz eta aprobetxatzea, erakundeak + erdi-erakundeak, elkarteak + taldeak + pertsonak euskaldunak ere aprobetxatzea, Euskaraz bizitzea posiblea egitea eta horrela pozik bizi ahal izatea,...

Errazena litzateke berezko Euskal Estatu propioa lortzea, eta horren bitartez lortu ere: egiazko berezko politika linguistiko propioa izatea, egoera demokratikoan egotea, etika ekolinguistikoa gordetzea Euskara normaltzeko (bere indarberritze+biziberritze prozesuaren bitartez), hizkuntza normala eta ofiziala (benetan) izatera iristea, EHa osoa euskalduntzea (zonalde linguistikoak bereizteko beharrik ez izateko), Euskara normaldu ondoren eta herritarrak euskaldunak izatea lortu ondoren "eleaniztasun indibiduala" (ez soziala) bultzatzea; horretarako, aurretik EHan transbertsaltasun + artekotasun handiak erabili beharko dira: EHrako berezko Estatu propioa lortu ahal izateko. Horrela, nola ulertu eta onartu EAEan (EHa osoarekiko ere antzean), instituzio edo erakunde

Nola kokatzen gara gutako bakoitza, AMIA eredu honen arabera?
Nolakoa da gu bakoitzaren diagnosis Euskararekiko? Ondo ezagutuz, hobeto planifikatuko dugu bakoitzak zer eta nola egin.

**Euskal Herriko
gizartea oso
egoera anitzean
eta konplexuan
dago, nahiz eta
Europan egon eta
erlatiboki txikia
izan.**

nagusiak direnen buruak (Jaurларitza eta Parlamentua, Aldundiak, ...) Euskararik ez jakitea? (legez ere, ez al da ba Euskara ofiziala?), edo Euskal Estatu propioaren alde ez egotea?, ...

Nola kokatzen gara gutako bakoitza, AMIA eredu honen arabera? Nolako da gu bakoitzaren diagnosia Euskararekiko? Ondo ezagutuz, hobeto planifikatuko dugu bakoitzak zer eta nola egin.

**2. E.H.KO GIZARTEA: ANIZTASUNA; ANALISI ETA
APLIKAZIO MAILAK; ARTEKOTASUNA**

I

2.1 Aniztasuna

Euskal Herriko gizartea oso egoera anitzean eta konplexuan dago, nahiz eta Europan egon eta erlatiboki txikia izan. Bereiztu ohi ditugu, orokorrean eta Euskararekiko ere, honako alderdi anitzak (AMIA bitartez aztertzeke ere, diagnosia ziurrera iristeko eta lasaiago egin beharrak proposatzeko):

— **Zonalde politikoak:** Estatu Espainiarraren+Frantsesaren menpe egonik, EHa lurraldea zatituta mantentzen dute (EAEa, Nafarroa, Iparraldea), zatituta ere beren arteko politika, ekonomia, administrazioa, hezkuntza, kulturgintza, ..., eta Euskararekiko ere.

— **Ukipen egoeran** egonda: EHko ezaugarriak ere (politika, ekonomia, hizkuntza, kultura, demografia, ...) menpeko posizioan daude, gu mantenduz libertaterik gabe aukeratzeko, plangintzatzako eta ezartzeko, ..., Euskararekin ere.

— **Zonalde soziolinguistikoak:** desagertu arte, positiboki erabili orde (euskalduntzeko, programa bereziak eta egokituak erabiliz, adibidez), gehiago negatiboki erabiltzen dira (euskalduntzea oztopatuz), ...

— **Eremuak:** familia, hezkuntza, lana, solasaldia, ekonomia, administrazioa, kalea, hedabideak, sareak, ..., anitzak ere ditugu, batzuk Euskararen eta EHaren aldekoak direnak eta besteak, alderantziz, kontrakoak .

— **Arloak:** zientzia ezberdinak, adierazpen kulturalak, festa motak..., anitzak ere, onerako batzutan eta txarrerako bestetan.

— ...

Alderdi hauetan pertsonak parte hartzen dugu, denak ditugu gertukoak: nola kokatzen gara gutako bakoitza Euskararekiko, alderdi bakoitzean?

2.2 Analisi eta aplikazio mailak

Psikologia Sozialak, eta beste zientzia batzuk ere, bereiztu ohi dituzte baita “pertsonekin” ere lotzen diren egoera anitzak, edo deitzen diren “analisi eta aplikazio mailak”:

Pertsonak

— Pertsona bakoitza: norbanakoak, bakoitzak dituen nortasunarekin + identitatearekin + motibazioekin + emozioekin..., bakoitzak bere indar-gune eta ahuleziekin...

— Pertsona-arteak: gertukoekin eta urrutikoekin, ikusi behar da nolako helburuak dituzten, nolako harremanak mantentzen dituzten, nolako komunikazioak jarraitzen dituzten, erkaketa asko egiten al dituzten beraien artean bai/ez, berdintasuna gehiago dagoen beraien artean bai/ez, artekotasuna erabiltzen duten helburuak lortzeko bai/ez, positiboki bizi al diren elkarren artean bai/ez...

Taldeak

— Talde bakoitza: sortu ohi da helburuak partekatuz, gertutasuna aprobetxatuz; ikusi behar dira bere barne-antolakuntza + aniztasuna + harremanak, lidergo-tasuna...; mantentzeko, ondo sentitzearen beharra dago, efizientzia lortzea...

— Talde-arteak: konplexua da gehienetan, askotan beraien arteko posizio ezberdinetan kokatzen direlako, bata gehiago dominatzailea eta bestea gehiago menpekoa gertatuz; honako artekotasuna sortu ohi da helburu batzuekiko ere, beraien arteko erkaketa erabiliz, harreman positiboak hala negatiboak edukiz, arteko berdintasuna nekez erabiliz bai/ez, arteko inposizioa eginez bai/ez, adostasuna lortu nahian bai/ez, komunikazioak eta pertsuasioa eraginkorrak erabiliz bai/ez; eman ohi dira ere beraien artean honako fenomenoak: “artalde” izenekoa (babez gabetasun ikasia: sinistuz + onartuz + obeditzuz + ...), menpeko taldean, “ardi beltza” izenekoa (talde-barnekoen bat(zuk) etsaia(k) kontsideratzea eta taldetik botatzea, menpeko taldean ere gehienetan, eta gehienbat talde arteko egoera oso gatazkatsua denean)... (Bourhis et al. 1996), Kasu honetan, izan daiteke: 1) edo Euskararen aldeko talde-arteak, orduan indartsuagoak eta efizienteagoak gertatuko dira beren ekintzak, edo 2) alderantziz, talde bat Euskararen aldekoa izatea eta bestea kontrakoa izatea.

Egunean, gainera, zenbait soziologok esaten dute “mundu likido, gaseoso” batean bizi garela: zalantzarria, aldakorra, ziurgabetasunekoak,

Alderdi hauetan pertsonak parte hartzen dugu, denak ditugu gertukoak: nola kokatzen gara gutako bakoitza Euskararekiko, alderdi bakoitzean?

Maila hauek oso garrantzitsuak dira Euskararekiko, onerako eta txarrerako ere, hauetan ematen direlako eragin handiena duten kanpoko faktore nagusiak: bai Aukerak (aldekoak) eta baita Mehatxuak (kontrakoak) ere.

**Estatua da
organizazio
nagusia,
erakunde ofiziala
eta publiko
nagusia, gizarte
bateko edozein
gauza
garrantzitsurako
beharrezkoa
dena, baita
Euskararen
normalkuntzarako
ere: oraindik
ez duguna, nahiz
eta ezinbestekoa
zaigun.**

..., bultzatzen duena taldeak aldakorrak gertatzea. Galdera da: horrela ote da gurean, Euskararekiko?

Organizazioak (antolamenduak)

— Elkarte sozialak (asoziazio pribatuak): Bagera, Soziolinguistika Klusterra, Kontseilua, AEK, Orreaga, EKO GUNeko Ekolinguistika, ...

— Erakundeak (instituzio ofizialak eta publikoak): 1) politikoak: Jaurilaritza, Parlamentua, Aldundiak, Udaletxeak, ...; baina falta zaigu garrantzitsuena dena: gure berezko Estatu propioa, 2) bestelakoak: administrazioa, hezkuntza, osasungintza, ...

— Erdi-Erakundeak (erdi-sozialak+erdi-ofizialak, erdi-pribatuak+erdi-publikoak): Alderdiak, Sindikatuak, Konfebask eta Adegia, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, UNESCO Etxea, ...

Maila hauek oso garrantzitsuak dira Euskararekiko, onerako eta txarrerako ere, hauetan ematen direlako eragin handiena duten kanpoko faktore nagusiak: bai Aukerak (aldekoak) eta baita Mehatxuak (kontra-koak) ere. Bietatik ematen dira egunean Euskararekiko, batez ere bereiztu ditugun hiru organizazio motatan. Hauetan kokatzen dira ere pertsonak: nola gutako bakoitza, berriro ere Euskararekiko?

Estatua

Hau da organizazio nagusia, erakunde ofiziala eta publiko nagusia, gizarte bateko edozein gauza garrantzitsurako beharrezkoa dena, baita Euskararen normalkuntzarako ere: oraindik ez duguna, nahiz eta ezinbestekoa zaigun.

Honi buruz ere, badago eztabaida egin beharra gure artean, zeren hau lortzea behar luke izan, egunean, lehentasunezko helburua, hori lortu eta gero litekeenak direlako bestelako helburuak lortzea: bakean bizitzea, demokrazia izatea, krisi ekonomikoa konpontzea, krisi ideologikoa gainditzea, eta abar, eta ez alderantziz, beste helburuen atzetik jartzea, egunean gehiago egiten dena, EHaren independentziaren kontrakoekin sinistu arazi egin diguten bezala, gehiegitan gertatutako fenomenoak izanik gure historian; adibidez, Municheko bileran, 1962an, frankismoaren trantsizioa plangintzatzako egin zena, eta Orreaga Elkarteak adierazten duen bezala (“Munich 1962: Isildu egia” izeneko DVDa).

Esango nuke, bi Estatu dominatzaileak (Espainia eta Frantzia) nahiko lortu dutela gurekin gu “babesgabetasun ikasia”, edo “artalde”, deitzen diren fenomenoekin funtzionatzea: sinistuz + onartuz + obedituz

+ ez-eztabaidatuz +..., horrela etengabeko bide luzean sartuz, gure zori txarrerako.

Gure berezko Estatu propioa izanda, Euskal Herria estatu normala izateak ekarriko luke, modu errazagoan, besteak beste, EUSKARA gure hizkuntza ofiziala eta normala izaten lortzea.

Eta gutako bakoitzak zer, guzti honekiko?

2.3 Artekotasuna

Hau da, egunean, zerbait geroz eta gehiago gertatzen ari zaiguna gurean, Euskararekiko gehien bat, gure zori onerako: 1) bai elkarte-artean, 2) elkarte+erakunde artean, 3) erakunde-artean, 4) erakunde+erdi-erakunde artean, 5) erdi-erakunde artean, 6) erdi-erakunde+elkarte artean, ..., 7) guzti hauek eta pertsona edo talde artean ere.

Esango nuke, gure berezko Estatu propioa lortu arte, egoera hau dela, jadanik egunean, aukera aberatsena Euskararen indarberritzean eta biziberritzean eragiteko. Esango nuke ere miraria dela horrenbeste elkarte (eta organizazio orokorrean) ezberdin egotea Euskararen aldekoak, Euskal Herri osoan, nik dakidan neurrian erabat berezia dena gure Herri honetan, eta sinistu ezina gertatzen dena nazioarteko soziolinguistika aplikatuan; nahiko miraria ere ikustea Euskararekiko mota guztiko artekotasuna nola handitzen ari den, zori onez. *BAT* aldizkarirako artikulu hau ere nahiko artekotasunaren ibilbidea egin duena, adibidea da, gure pozerako.

Horregatik ere, harrigarriagoa zaigu ikustea zenbait energia inbertitzen dugun Euskararen biziberritzean, lortzen dugun etekin nahiko eskasarekin erkatzen badugu (nire iritziz, noski): nola da posible, adibidez, azken 40 urtetan Euskararekiko lortu dena asko dela, lorpen oso positiboa izan dela, esatea?, nola sinistu daiteke horrelako diskurtsoa besterik gabe?

Artekotasunaren adibideak Euskararekiko geroz eta gehiago egiten dira, mota guztietakoak, esan bezala. Adibidez: 1) aurtengo (2013) Donostiako Aste Nagusiaren ikurritza bat izan da: "PARTE HARTUZ, DONOSTIARRON SAREAK JOSI"; 2) aurtengo HIZNET ikastaroan parte hartzen dute: EHU/UPV (antolatzailea), EJ/GVko Kultura Sailak, HABE Liburutegia, Asmoz Fundazioa (Eikoa), UEU, Fondo Social Europeo, Soziolinguistika Klusterra; 3) *BAT Soziolinguistika Aldizkariaren* historia bera horrela eginez jarraitzen du indarrez...

Noraino, gutako bakoitzak, artekotasun honetan parte hartzen dugu?, edo hobeto, ze leku bete nahi dugu horretan?

Artekotasuna da, egunean, zerbait geroz eta gehiago gertatzen ari zaiguna gurean, Euskararekiko gehien bat, gure zori onerako:
1) bai elkarte-artean, 2) elkarte+erakunde artean, 3) erakunde-artean, 4) erakunde+erdi-erakunde artean, 5) erdi-erakunde artean, 6) erdi-erakunde+elkarte artean, ..., 7) guzti hauek eta pertsona edo talde artean ere.

Euskararen historia ere ezagutu beharra dugu, bere ibilbide luze, nahasia eta nekeza ulertu beharra, gora-behera egoera honetan hobeto erabakitzeko zer den onena Euskararen bizi-endarra bultzatzeko eta normalizazioa lortzeko, eta honetan ere gu bakoitzaren zeregina ikusteko.

3. EUSKARAREN HISTORIA

I

Euskararen historia ere ezagutu beharra dugu, bere ibilbide luze, nahasia eta nekeza ulertu beharra, gora-behera egoera honetan hobeto erabakitzeko zer den onena Euskararen bizi-endarra bultzatzeko eta normalizazioa lortzeko, eta honetan ere gu bakoitzaren zeregina ikusteko.

Histori hau ikus daiteke modu ezberdinetan. Orain erabiliko dena da: 1) Euskararen gaitasuna eta erabilera, 2) gehienbat Euskal Autonomo Erkidegoan (EAEn) orain (nahiz eta EHa osoarekiko ere egin beharra dugun), errazagoa izango zaigulako, 3) bereiztuz historia motza eta luzea.

3.1 Euskararen historia motza

Hau da gehien ezagutzen dugun historia, gertukoena eta aipatuena delako: 1970- gerozkoa. Baina epe honetan gertatzen dena hobeto ulertzeko, XX. mende hasieratik ikusi beharra dago.

Euskararen ezagutza edo gaitasuna aldetik.

Bereiztuko ditugu bi epe nagusi: 1) XX. mendean, 1900-1970 arteko 70 urteak, 2) XX. eta XXI. mendetan, 1970-2010 arteko 40 urteak (orain EAEn):

- **1900ean:** EAEn, populazioaren %80 inguru euskalduna zen, eta hauen artean erdiak (%40) euskaldun elebakarrak, erdaldun elebakarrak %20 zirelarik, gutxi gora-behera;
- **1970ean:** euskaldun elebakarrak desagertu dira, euskaldunak elebidunak (aktiboak, suposatzen da) bihurtu dira eta bakarrik populazioaren %24 inguru dira, erdaldun elebakarrak berriz % 75 dira.
- **2006an:** (EJ/GV, 2008) (1. Oharra), 16 urte eta gehiagokoen artean: elebidun aktiboak populazioaren %30,1 dira, elebidun pasiboak beste %18,3 dira, eta erdaldunak %51,5 dira.

Hau da, gutxi gora-behera, 40 urtetan (1970-2010) lortu dena. Populazioaren euskalduntze prozesuan, izan da, bakarrik: 1) erdaldunak %75tik à %51,5ra pasatzea, 2) euskaldun elebakarrak desagertzea, 3) euskaldunak, denak elebidunak izatera pasatzea: aktiboak %24tik à %30ra pasatuz, eta %18 pasiboak lortuz.

Badakigu ere elebidun aktiboak: 16 urte baino gutxiago duten haur eta gazteen artean %65 inguruan dabilzala; baita ere 16-24 urte artekoak %57,5 direla euskaldunak; edo Gipuzkoan populazioaren %49,1 direla.

Baina galdera da: nola interpretatu behar dira datu hauek?, horrenbeste energia soziala erabili ondoren, nahiz eta oztopo asko gaindituz ere, esan al dezakegu azkeneko 40 urte hauetako lorpena horren positiboa izan dela? Nire ustea (eta beste batzuen ere) da euskalduntze bilakaera eskasa izan dela. Beste galderak dira: zergatik horrela gertatu da?; egungo plangintza gutxi aldatzen bada, posible ote da Euskara orain arteko ibilbide exkaxean jarraituz, ezer lortzerik, ikusita aniztasuna eta konplexutasuna (munduan eta bertan) etengabe handitzen ari direla?

Euskararen erabilera aldetik

Berriz ere EAEn kokatuz, esan dezakegu bai bilakaeran, eta baita egunean ere, egoera ez dela hobea, azterketa guztiak adierazten duten bezala. BAT aldizkari honetan (84 zenbakian (2012, 3): *Hizkuntzen kale-erabilera VI. Neurketa, 2011. Euskal Herria* (EHn, oraingoan) argitaratu da, eta datu nagusiak esaten dute: 1) Euskara erabiltzen dutela %13,3; 2) gaztelania (espainiera) eta frantsesa %83,1; 3) beste hizkuntzak %3,7 (hau datu berria zaigu; zer suposatzen du?).

Arrazoi asko erabiltzen dira egoera hau azaltzeko, teorikoagoak batzuetan (adibidez “eredu matematikoa” J.L. Alvarez-Txillardegi eta X. Isasi; edo N. Iriberrri eta J.R. Uriarteren eredu matematikoa ere; ...), enpirikoagoak bestetan, adibidez: 1) eskolatik edo familiarik kanpo egoera erdalduna nagusi delako; 2) Euskaraz ez baduzu espainiera bezain edo gehiago ezagutzen, ez da erabiliko, nekezagoa egiten delako (“ekonomi-lege psikologikoen” arabera: ia automatikoki aukeratzen da errazena+motzena+pozgarriena+... dena); 3) eskoletan ikasi dena da batez ere “Euskara formala”, baina ez “Euskara informala”, hau izanik gehienetan erabilgarriagoa; 4) aisialdian Euskaraz erabiltzen ez dutenak, bestelako eremutan oraindik gutxiago erabiliko dute; 5) zenbait eremutan derrigorrez espainiera erabili beharra (osasungoan, administrazioan..., baita ere dendetan, tabernetan,...); 6) beharrez egiten direnak, ohiturak sortzen dituzte, nekezak gero aldatzeko direnak (“ekonomi-legearen” arabera, berriz ere); 7) estresa ere dago zein hizkuntzatan hizketan hasi aukeratzekoan (Badu-Bada, Donostian, STM, 2012-2013); 8) nahiko da elkarrizketa batean bat erdalduna izatea, beste guztiak erdarara pasatzeko (elebidun pasiboak nola gelditzen dira?, ez al dira aprobetxatu behar?); 9) sarearen solaskideak nolakoak, testuingurua nolakoa, nongo zonalde linguistikoan, eta abar luzea; 10) herri txiki uniformetan errazagoa da Euskara erabiltzea, herri handi konplexuetan baino; Saizarbitoria idazleak dion bezala: “... Uzte dut salbazioa Bilbon dagoela: Bilbon salbatuko gara, edo ez gara

Hau da, gutxi gora-behera, 40 urtetan (1970-2010) lortu dena. Populazioaren euskalduntze prozesuan, izan da, bakarrik: 1) erdaldunak %75tik → %51,5ra pasatzea, 2) euskaldun elebakarrak desagertzea, 3) euskaldunak, denak elebidunak izatera pasatzea: aktiboak %24tik → %30ra pasatuz, eta %18 pasiboak lortuz.

Badakigu ere elebidun aktiboak: 16 urte baino gutxiago duten haur eta gazteen artean %65 inguruan dabilzala; baita ere 16-24 urte artekoak %57,5 direla euskaldunak

Guzti honengatik, ezinbestekoak dira: 1) Euskarak zentralitateA bete behar duela gure gizartean (zer da Euskal Herria, Euskararik gabe?); 2) Erabaki politiko berriak lortu behar ditugula (baita gure berezko Estatu propioa lortu baino lehen ere).

salbatuko... handiagoa delako" (argia, 2012ko irailaren 2a, 2.334 zenb., 26.or.); 11) zenbait arrazoi sozio+psiko+linguistikoko aldetik ere: zergatik, zertarako, nola, bakoitzaren identitatearen arabera...

Guzti honengatik, ezinbestekoak dira: 1) **Euskarak zentralitatea** bete behar duela gure gizartean (zer da Euskal Herria, Euskararik gabe?); 2) **Erabaki politiko** berriak lortu behar ditugula (baita gure berezko Estatu propioa lortu baino lehen ere).

Honi buruz, berriro ere, badugu zer egin (pentsatu, eztabaidatu, erabaki, ekin...) gutako bakoitzak!

3.2 Euskararen historia luzea

Euskarak histori luzea du, nahiz eta gutxi idatzia izan den erlatiboki. Interesgarria da, adibidez, J.M. Torrealdai autoreak idatzitako *El libro negro del Euskara* (1998, Tarttalo), azken 300 urteko testuak jasotzen dituelarik: "La política lingüística española de <<la lengua compañera del imperio>> había comenzado bastante antes, pero creemos que lo más importante del tema se substancia al plantear el monolingüismo del Estado-nación que excluye el resto de las lenguas".

Egia da Euskararen historia (luzea eta motza ere) nahiko beltza dela, orain arte. Datu adierazgarri batzuk hemen emateko, *Badu-Bada Erakusketa* erabiliko dugu. Lehengo galdera honi: "¿El Euskara se perdió de forma natural?" erantzuteko, erakusketako datak erabiliko ditugu, adibide moduan:

- 1768: Se prohíbe el Euskara en la enseñanza de las primeras letras (Real Cédula de Carlos III).
- 1772: Se prohíben los libros de contabilidad para comerciantes en Euskara (R.C. Carlos III).
- 1776: Se prohíben los libros sean Euskara (Conde de Aranda).
- 1801: Se prohíbe todo tipo de representaciones teatrales en Euskara.
- 1803: Una denuncia particular sobre castigos corporales infligidos por hablar Euskara en la escuela.
- 1857: Obligatoriedad de la escolaridad únicamente en castellano (Ley Moyano).
- 1862: Se prohíbe el Euskara en todo tipo de escrituras públicas.
- 1867: Se prohíbe el Euskara en todo tipo de obras dramáticas (Real Orden de Isabel II).
- 1902: Orden en la que se castiga a los maestros que enseñan en su idioma o dialecto (R.O. de Alfonso XIII y Romanones).

- 1923: Prohibición del Euskara en actos oficiales (Alfonso XIII y Primo de Rivera).
- 1925: Se retiran los libros de texto en Euskara y suspensión de empleo y sueldo a quienes enseñen en dicha lengua.
- 1937: Prohibición de hablar en Euskara.
- 1938: Se excluye el Euskara de los registros.
- 1939: Exclusión del Euskara en la rotulación de hoteles.
- 1940: Excluido en Tribunales y Comercios.
- 1944: Prohibido en las escrituras públicas.
- 1947: Prohibido en las revistas.
- 1948: Prohibido en las escuelas.
- 1954: Prohibido en las radios.
- 1964: Prohibido en discos y publicidad.

Baina 1960 hamarkada honetan sortzen da erresistentzia Euskararen alde egiteko (aurretik, XX. mende hasieraren antzekoa), Euskara erabiltzeko; baita pasatzen da ere **erresistentziatik iraultza isila egitera**, eta sortzen hasten dira: ikastolak, helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua, abesti berria (Ez dok Hamairu taldea, Labeguerie Iparaldean, ...), literatura berria ere (Txillardegi, Saizarbitoria, eta beste batzuk), irrati kate txiki berri batzuk, ..., edo ikasle unibertsitario euskaldun taldea Madrilen Euskara irakatsi-ikasteko eta Euskaraz bizitzeko, eta abar luzea; **Euskaraz bizi nahi dugu!** ikurritza orduan erabiltzen genuen. Hau guztia gutako askok ezagutu dugu. Koldo Mitxelenak ere dio: “El verdadero misterio del Euskara es su pervivencia, no su origen”.

— ...

- 2013: “Españolizar Catalunya ...” (bereziki Catalunya eta EHa), Wert ministroak bere LOMCE legearen bitartez (2013) lortu nahi duena Espainia Estatu osoan ezarriz, nahiz eta EAeko Autonomi Estatutoaren kontrakoa izanda ere.

Gutako askok bizi izan dugu egoera hau. Orain galdera litzateke: 1) nola bizi genituen bere garaian Euskararekiko egoera hau?, 2) nolako oroipenak ditugu?, eta 3) nola baloratzen ditugu?

3.3 Euskara gaur

Berriz ere Badu-Bada Erakusketan jasotakoa erabiliz, esango genuke **“Euskara gaur bizirik da”**, edo mantentzen da, zeren:

**Egia da
Euskararen
historia (luzea
eta motza ere)
nahiko beltza
dela, orain arte.**

**Koldo
Mitxelenak ere
dio: “El
verdadero
misterio del
Euskara es su
pervivencia, no
su origen”.**

Euskarak egunean egoera kontraesankorrean dago: 1) alde batetik, badirudi irekitzen ari zaigula beste epe bat emankorra, sortzailea, anitza, artekotasunean oinarrituz, aberatsa, indar sozialean gehienbat baina baita ere udaletxetan eta abar kokatuta, ... Euskararen alde, Euskara indartzeko eta normaltzeko, XX. mende hasierakoa edo 1960 hamarkadaren antzekoa; 2) bestalde, ordea, badirudi gehienez mantentze egoeran gaudela, norabideak ez direla berritzen, beren beharra ez dela handitzen, legeak ez direla hobetzen, indar politikoak ez dutela asmatzen,

BADU:

Entzulerik, ikuslerik, hiztunik, irakurlerik, malgutasunik, bizitasunik, blogaririk, zibernautarik, babesik, eskolarik, lurralderik, araurik, baliorik, sortzailerik, aitormenik, prestigiorik, gaitasunik, botererik, pozgarritasunik, ...

BADA:

Idazten, ukitzen, mugitzen, inprimatzen, asmatzen, digitala, ikusten, ezinbestekoa, maitatua, entzuten, erabilia, bizia, defendatzen, berezkoa, transmititzen, irakasten, ikasten, idazten, aldatzen, errespetatua, beharrezkoa, ...

Hala ere, nire ustez, Euskarak egunean egoera kontraesankorrean dago: 1) alde batetik, badirudi irekitzen ari zaigula beste epe bat emankorra, sortzailea, anitza, artekotasunean oinarrituz, aberatsa, indar sozialean gehienbat baina baita ere udaletxetan eta abar kokatuta, ... Euskararen alde, Euskara indartzeko eta normaltzeko, XX. mende hasierakoa edo 1960 hamarkadaren antzekoa; 2) bestalde, ordea, badirudi gehienez mantentze egoeran gaudela, norabideak ez direla berritzen, beren beharra ez dela handitzen, legeak ez direla hobetzen, indar politikoak ez dutela asmatzen, eta abar.

Gure esperientzia pertsonalean, nola ikusten eta bizi dugu egungo egoera?, nola egin gutako bakoitzak, artekotasun bidea jarraituz, egoera argitzeko eta hobetzeko ere?

4. DISKURTSOAK ETA IKURRITZAK

Gauden egoeran, eta oraingoz, Euskararen alde egitea beharrezkoa zaigu, zentsu guztietan: 1) bai kuantitatiboki, populazioarekiko, 2) baita kualitatiboki ere, modu erakargarriak erabiliz. Adibidez, aipatu dugu zein garrantzitsua den Euskararekiko artekotasuna bultzatzea: (1) bai Euskararen aldekotasun aktiboa indartzeko, (2) baita Euskararen presentzia, ikuspena eta entzumena ere, gerturatzeko.

Egunean, garrantzi berezia ematen zaio erabilitako diskurtsoak nolakoak diren ezagutzeari, baita aipatutako helburuak lortzeko nolakoak behar duten izan erakargarriak gertatzeko ere, eta Euskararen aldekotasuna indartzeko, besteak beste: 1) **diskurtso positiboak** behar dute izan: ikusmina sortuz, partehartze gogoia piztuz, estimulagarriak gertatuz, motibagarriak izanez, eta abar; 2) Euskararekiko **ikurrizak ere positiboak** behar dute izan, garrantzitsuak gertatzeko: bereziak, erakargarriak, sortzaileak, estimulagarriak, ... Orokorrean, "komunikazio gertaerak harri-garriak, konbentzitaileak eta pertsuasiboak" modukoak izan behar dira.

Horrela: 1) lehenbizi egin beharrekoa da nolakoak erabiltzen diren jakitea eta aztertzea, 2) gero proposamen batzuk emateko. Horretarako baliagarria zaigu *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 86 (2013,1): *Euskararen FRAMING berriaz* izenekoa, komunikazioari buruzko zenbaki monografiko aberatsa dugulako: 1) bai **diskurtso berri** baten beharra zergatik dugun + nolakoa behar duen izan aztertzen ditu, Euskararen aldekotasun aktibo orokorra lortzeko helburuarekin, 2) baita ere nolakoak behar duten izan erabiltzen diren **Euskararekiko ikurritza berriak**; adibidez, nik erabilitakoak: (1) BAGERAko eta ORREAGAko Jardunalditan, nire mintegiaren izenburua zena: **POZIK BIZI(KO) NAIZ+GARA EUSKARAZ!**; (2) EHUko Psikologia Fakultatean, 1990 hamarkadan, erabili genuena: **Euskara Ahora!**, egokia zena bai euskaldunentzako (**ahora!** = hitz egitera), baita erdaldunentzako ere (**ahora!** = orain, gerorako utzi gabe).

Euskararekiko ikurritzak asko ditugu, bai historikoki eta baita egunean ere, organizazio mota gehienak berea dutelako, mugimendu sozialak ere, ekintza askok ere, eta abar; gainera, aldatzen joaten dira, eta horrela: 1) bai gure ahalmen sortzailea erakusten dugu, 2) baita harrigarria gertatzen dira ere hartzaileentzako eta, horrela, eraginkorrakoak dira.

Adibide moduan, ondoan adieraziko ditugu **KORRIKA**ko historian erabili direnak, pentsatuz ekintza hau gertukoa zaigula; 1980an lehena ospatu zena, 18 edizio egin dira, Euskal Herri osoa zeharkatuz, bakoitza bere ikurritza eta abesti berezietan (Sustatu.com, 2013-03-24an jasoa):

- 1980: *Zuk ere esan bai Euskarari* (Korrika 1; Xabier Amuriza).
- 1982: *AEK, Euskararen alternatiba herritarra eta herriaren erantzuna Euskararen alde* (Korrika 2; Akelarre).
- 1983: *Euskaraz eta kitto!* (Korrika 3; Egan).
- 1985: *Herri bat, hizkuntza bat!* (Korrika 4; Lontxo Aburuza).
- 1987: *Euskara, zeurea* (Korrika 5; Oskorri).
- 1989: *Euskara Korrika eta kitto eta Euskal Herriak AEK* (Gu AEK-koak gara; Xanti eta Maider).
- 1991: *Korrika Euskara, Euskaraz Euskal Herria* (Korrika 7; Irigoien Anaiak eta Mikel Erramuspe).
- 1993: *Denok maite dugu gure herria Euskaraz* (8, Aide Korrika; Tapia eta Leturia).
- 1995: *Jalgi hadi Euskaraz* (9, Bizi ganoraz; Maixa eta Ixiar, Alex Sardui, Kepa Junkera).
- 1997: *Euskal Herria Korrika!* (10, Euskal Herria Korrika; Gozategi)
- 1999: *Zu eta ni Euskaraz* (11, 1 eta 1; Joxe Ripiau).
- 2001: *Mundu bat Euskarara bildu* (12, Big Beñat; Fermin Muguruza).

Gauden egoeran, eta oraingoz, Euskararen alde egitea beharrezkoa zaigu, zentsu guztietan: 1) bai kuantitatiboki, populazioarekiko, 2) baita kualitatiboki ere, modu erakargarriak erabiliz.

- 2003: *Herri bat geroa lantzen* (13, Gero bat gaurdanik; Mikel Laboa eta Ruper Ordorika).
- 2005: *Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai!* (14, Ni ere bai; Afrika Bibang).
- 2007: *Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, Euskarari, herriari* (15, Heldu; Niko Etxart eta El Drogas).
- 2009: *Ongi etorri Euskaraz bizi nahi dugunon herrira!* (16, Ongi etorri laguna; Betagarri).
- 2011: *Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari* (17, Pausoz pauso euskalakari; Gose).
- 2013: *Eman Euskara Elkarri!* (18, Bagoaz; Esne Beltza) (artekotasuna adieraziz).

Beste modu erakargarriak Euskararekiko dira: Euskararekin jolastu, ondo pasa, lagunak egin, esperientzia aberatsak lortu, pozik bizi, ... (beste motatako diskurtsoak eta ikurritzak direnak). Adibide moduan Kike Amonarriz jarri daiteke, gure artean ezaguna delako. Kike Amonarriz “Euskararekin jolasteko hamaika modu badaudela erakutsi digu”.

b paperekoa.berria.info | gaur (2013-5-5): 14:13 | #

“Filologo eta soziolinguista izaki, Kike Amonarrizek (Tolosa, Gipuzkoa, 1961) Euskararekin ondo pasatzeko sistemak aurkitzea izan du betidanik kezka eta afizio. Txiste kontalari gisa egin zituen lehen urratsak ETBn. 2006. urtetik, Mihiluze lehiaketan gauzatu du Euskararekin jolasteko grina hori. Zortzi denboraldi, 1.117 saio eta 2.400 lehiakide inguru platotik igaro ostean, maiatzaren 15ean (2013) azken saioa eman dute. Indartsua izanda da oso Biba Mihiluze: lehiakide bereziak eta ikus-entzuleentzako sariak izan ditu”.

Sentsu honetan, aipagarriak dira ere: “#irrikatown” programa EITBan; Gabonetarako antolatu diren horrenbeste solasaldi ezberdin berri Euskaraz Donostian, nagusiki haurrentzako, Udaletxe aldetik gehien bat bultzatuta, eta abar. Adierazpen hauek ere, diskurtsoak bezala, komunikazio diskurtsiboak dira. Noraino ezagutzen ditugu guzti hauek?

Guzti hau, berriro esanez: gutako norbanako bakoitzaren hausnarketarako, erabakiak hartzeko eta ekiteko ere, bakarka eta artekotasunean ere! ●

(Eskerrak eman: BAGERA Elkarteari, eta ORREAGA Elkarteari ere, eman zidaten aukeragatik beren Jardunalditan parte hartzeko, baita BAT Aldizkariari ere, emanaldia argitaratzeagatik, beti ere artekotasuna erabiliz)

1. Oharra: datu berri hauentzako, ez dugu erabili azkeneko azterketa: Iñaki Martínez de Luna (zuz.) (2013). *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia. Azterketa eta gogoetak*. Vitoria/Gasteiz: EJ/GV. Azterketa aberatsa da eta eguneratua dago, baina konplexuegia dela iruditu zaigu Jardunaldietako mintegitan adierazteko, eta lan honetan ere orain erabiltzeko.

2. Oharra: Nekaza zait Bibliografia aipatzea, artikulua iturriak oso zabalak direlako, diziplina ezberdinetan lantzen direnak, nik aspaldi denik erabilitakoak nire lanetan ere eta barneratuak ditudanak. Nire ikerketa ibilbidean, adar ezberdinetan, Euskara beti egon da txertatuta, hasieratik (1976-). Horregatik, ia nire argitalpen guztiak aipatu beharko nituzke (150 inguru). Erabilitako besteen argitalpenak, lan honekin zerikusi dutenak, gehiegi dira ere hemen aipatzeko, baina nire aurreko argitalpenetan erabiliak eta aipatuak dira.

Bestalde, gaur egun ditugu gutxienez honako iturriak, Euskararekiko nahiko informazio interesgarria, berria eta eguneratua lortzeko: 1) *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, alde batetik; 2) HIZNET izeneko urteroko ikastaro elektronikoa, bestalde, 3) baita zenbait organizazioak sortzen dutena ere: EJ/GV, Eusko Ikaskuntza Berria, UNESCO-Katedra, EKO-GUNeko Ekolinguistika, Soziolinguistika Klusterra, Kontseilua, ...; 3) zenbait beste aldizkari ere: *argia*, *Uztaro*, *Jakin*, *Hizpide*, *hik hasi*, *Iparla*, *Berria*, ...; 4) zenbait aditu, pertsonalki eta taldean ere, unibertsitarioak direnak eta ez-direnak, argitaratu dituztenak, ...

Honi buruz, *BAT Soziolinguistika Aldizkarian*, zerbaki honetan bertan, Agitalpen Batzordeak eskaintzen digu: "Azken urteetako Euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren azterketa deskribatzailea" izeneko artikulua aberatsa, ezagutu beharrekoa zaiguna.

3. Oharra: Euskara, beste arrazoien artean, maiuskulaz erabili dut artikuluan, lanean erdigunea betetzen duen gaia delako.